

ADABAKIAK

Beterri.—Guk, Urkijo-Mintegikoak, *Spoutnik*, *Vanguard*, *illargikume* ta beste orrelako tresnei buruz, asko ezpada ere, zertxobait beintzat badakigu.

Beragatik, urrengo zenbakian argitaratuko degu gai oni dagokan idaztitxo bat.

Are geiago: Urkijo-Mintegikoak, datorren urteko agorrill-aldean, ta Jaingoikoak nai badu, *illargikume* bat sortu ta, zakurrarekin edo katuarekin, ta zuzen edo oker, gorontz botatzeko asmoa degu. Bai, alazankoa!

Ipar-amerikanoak añean *egingo* al degu baldin baita ere...

* * *

X. X.—Guri euskera-mota oriekin, ardo gorri naparrarekin eta *coca-colarekin* gertatzen zaiguna ber-bera gertatzen zaigu.

Adibidez, ardo gorri naparra txit gogoko degu, baña ez *coca-cola*.

Orobat, *Orixe*'ren euskera, esate baterako, oso gogoko degu, baña beste... *euskera-coca-cola* ori, batere ez.

* * *

Goierriar bat. “Julio de Urquijo” Mintegiak azken urteotan eratu dituen itzaldiak berrogei ta amarretik gora dituzu: orietatik, berrogei baiño geiago euskeraz. Ona izlarien izen-zerrenda: Aginaga, Alvarez (“Txillardegi”), Ansola, Apraiz (Odon), Aita Aranguren, Arrue, Azkue (“Dunixi”), Barandiaran (J. Migel), Beloki, Bouda (Erlangen'go Universidadekoa), Caro Baroja (Julio), Aita Donostia

(G. B.), Elosegí, Etxaide (Jon), Etxaniz, Garmendia ("Zeleta"), Gorostiaga, Holmer (Lund'eko Unibersidadekoa), Irigaray, Irigoyen, Aita Iturria, Labayen, Lacarra (Zaragoza'ko Unibersidadekoa), Lafon (Bordele'ko Unibersidadekoa), Aita Larrañaga (Pingliang'go Apezpikua), Lekuona (Manuel), Lojendio (J. M.^a), Mitxelena (L.), Aita Mitxelena (Salbatore), Aita Omaetxebarria, Aita Onaindia, Aita Villasante, Zaitegi, Zugasti. Itzaldi bat baño geiago frankok eman dute eta ezta kigu ez ote zaigun izenen bat tintontzian gelditu.

Euskal-idazleak aztertu izan dira geienetan: Agirre (J. B.), Añibarro, Astarloa, Axular, Pr. Bartolome, Bilintx, Dextepare, Elizanburu, J. Etxeberri Saratarra, Gerricko, Iturriaga, Oihenart eta Ubillos, gutxienez. Erabili izan diran beste zenbait gai eztitugu aitatu besterik egingo: Bizkai'ko kanta zaarrak, Olentzero, Gabon-kantak, antziñako atsotitz edo errefraukak, sorginkerizko otoiak, euskal-gramatika, gure izkuntza eta Kaukaso'koen arteko ar-emanak, zeltak eta euskaldunak, euskal-dialektologia, Bonaparte printzea eta Araba, Arantzazu eta arte-berria. Eta, euskal-gaietatik kanpora, Europa berria, gaurko Pedagogiaren egoera larria, Sokarte eta Platon'en filosofia eta Unamuno.

* * *

Jakinzale. Diozuna egia da, baiña alde batetik bakarrik. Atzo etzan inguru oetan geiegi irakurtzen, ez euskerazkorik ez erderazkorik. Zenbait euskal-irakurgai, nekearen nekez, poliki zabaldu ziran; beste asko, ordea, ez.

Gaur, txit aldatuak ageri dira gauzak, "Eda" banatzaileari eskerrak. Mintegi onexetako gelan sortu zan, eta eztugu ortatik poz-bide kaxkarra ateratzen. Eta "Eda" esatea banatzaile ortako zabal-kunde-lan astuna bere gain artu duen gizona esatea da: gizon prestua benetan eta langillea, langille purrukatua batez ere. Euskal-irakurgaiak salgai dituztenak, Donostia'n naiz Arantzazu'n, Zarautz'en naiz Bilbao'n, ao batez mintzatzen dira orrezaz. Eta eztugu iñori sinistu bearrik, gerok ikusten baitugu atzotik gaurrera dagoen alde arrigarria. Zaude, beraz, lasai, "Jakinzale" biotzekoa, eta ken ezazu kezka ori burutik.

